

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA - CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

2025eko ekitaldiko laugarren hiruhilekoan Antoñana, Apilaiz, Berantevilla, Espejo, Estavillo, Gauna, Corro, Ribabellosa, Villanueva de Valdegovía, Zambrana, Zurbao eta Ullíbarri Gamboako kontzejuetan edateko ura eta estolderia hornitzeko zerbitzuak emateagatiko tarifei buruzko kotizaziopeko errolda

Antoñana, Apilaiz, Berantevilla, Espejo, Estavillo, Gauna, Corro, Ribabellosa, Villanueva de Valdegovía, Zambrana, Zurbao eta Ullíbarri Gamboako kontzejuetan 2025ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoan edateko ura hornitzeagatiko eta estolderia zerbitzuak emateagatiko tarifak ordaindu behar dituztenen errolda egin da, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, errolda behin betiko onetsiko da.

Edateko uraren hornikuntza eta estolderia zerbitzuak kobratzeko aldia:

A) Borondatezko epea: 2026ko otsailaren 23tik apirilaren 23ra. Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2026ko otsailaren 23an.

B) Kobratzeko epe exekutiboa: 2026ko apirilaren 23tik aurrera epe exekutiboari emango zaio hasiera, eta epe exekutiboko errekaruak, premiamendu erreduzitu nahiz arruntekoak, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean adierazitako epeetan ordaindu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ribabellosa, 2026ko urtarrilaren 14a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES